

AUZO BATEN ERRETRATUA

Nerea Goti

San Frantzisko, Bilbo Zaharra eta Zabala kaleek osatzen duten ingurua erretratatu du Bego Elexpek hango profesionalen erretratuen bidez, bizitza errotik aldatzea erabaki zuenean harrera egin zion auzoa ezagutarazi eta haren benetakotasunaren balioa nabarmentzeko. Hilaren 18ra arte bertan egongo da, eta gero izango dira hura ikusteko aukera gehiago.

Bilboko San Frantzisko kaleko ExpoGelan ikusgai dago auzoko denda eta establezimenduetako langileen 40 erretratuz osatutako bilduma, eta ez edonolakoa. Irudien atzean, auzo baten bizitza dago, lanbide eta istorio ezberdinak, baita auzoa bera omentzeko nahia eta inguru horrek duen izaera indartsua, «benetakoa», adierazteko beharra ere.

Erretratu horien egilea Bego Elexpe da. Erakusketari «Auzo baten erretratuak» deitu dio. Lan horrekin bere bizitza bete duen auzo bat omendu nahi izan du, aurreiritziak eta errealtatea rekin bat ez datorren irudi bat uxatzeko. Elexperen istorioak berak proiektua hobeto ulertzen laguntzen du, lanbidea eta jaioterria utzi eta aurreiritzi horien eta bestelako gomendioen kontra Bilbo Zaharrean bizitza proiektu berri bat hasi zuen emakume baten istorioa baita. Urteak pasata, balantzea egin behar badu «erabat positiboa» izan dela nabarmendu du, eta orain ikusgai duen erakusketarekin bere auzoa benetan zer den islatu nahi izan du.

Duela urte batzuk izan zuen osasun arazo batek zer pentsatu eman zion Elexperi. «Bizitza motza da eta bene-



tan egin nahi dudana egin behar dut» pentsatu zuela kontatu dio GAUR8ri. Gauzak goizetik gauera oker daitezkeen ebidentziaren aurrean jarri izan balute bezala, argazkilariak goitik beherako aldaketa bat egitea erabaki zuela azaldu du.

Dekoratzaileria zen eta zeukan lanbidea eta lanpostu finkoa atzean utzi zituen eta bere argazkilaritza estudio propioa zabaldu zuen Aretxaga kalean, San Frantziskok, Bilbo Zaharrak eta Zabalak Bizkaiko hiriburuaren bihotz historikoan osatzen duten kultura aniztasunaren kosmosaren muin-muinean. Auzoa ez zitzaion ezezaguna, bertan egiten baitzuen lan; lagunak ere bertan zeuzkan. «Heldu zen une bat, non ia

Bego Elexpe argazkilaria, Bilbao Historiko elkartearen ExpoGelan ikusgai duen «Auzo baten erretratuak» erakusketan.
Aritz LOIOLA | FOKU

dena auzoan egiten nuen, denbora osoa bertan ematen nuen, erosketak auzoan egiten nituen, hemen poteatu... Eta erandiotarra naiz, baina pentsatu nuen 'zergatik ez dut nire pisua alokatzen eta hona etorri bizitzera?' Eta hori egin nuen, gaur egun hemen egiten dut lan eta alboan daukat etxea, eta zoriontsu bizi naiz, balantzea erabat positiboa izan da, hamar bat», azaldu du.

GOITIK BEHERAKO ALDAKETA BAT

Une hartan ingurukoekin ideia partekatzean izan zituen erantzunei dago kienez, ez du ezkututzen planak kezka eragin zuela etxeko eta hurbilekoen artean. «Etxekoek lagundu naute baina hasieran erokeria zela pentsatzen zu-



ten, nire ahizpak oposizioak prestatze-
ra animatzen ninduen» dio irribarre
artean, eta onartzen du ahizparen
aholkuaren atzean egonkortasuna bila-
tzearen nahia zegoela, segurtasunaren
bermea izatea, baina «benetan nahi
nuena egin behar nuen eta merezi izan
du, arro sentitzen naiz nik lortu duda-
lako guztia; batzuentzat lortu dudana
ez da asko izango agian, ez naiz bonba-
zia handian bizi baina niretzat nahikoa
da», dio Elexpek.

Argazkilari lanbidean trebatu behar
izan zuen. Elexperen esanetan, oso
gustukoa zuen marraztea, bozetoak ere
egin izan ditu estudioentzat, baina ar-
gazkilaritzara salto egitea erabaki zuen
eta horretan jarri zen buru-belarri. Le-
henik Milanera joan zen ikasketak egi-
tera, eta ondoren Madrilen jarraitu
zuen. «Neure burua prestatuta zegoela
ikusitu nuenean, nire marka sortu nuen
eta hasi nintzen argazkigintzan era
profesional batean», adierazi du eran-
diotarrak.

Marrazkigintzaren aztarnak badaude
Elexperen erretratuetan, batez ere ko-
loreen trataerari begiratuta. «Ez ditut
argazkiak egiten eta kito, Photoshop-
arekin marrazten ditut gero, ez dut
guztietan egiten, azkenean bezero ba-
koitzak eskatzen duena errespetatu be-
har dudalako, baina proiektu pertsonal
bat bada, argazkiak marrazten ditut»,
dio bere lanaz.

Estudioan apur bat denetarik egiten
du eguneroko lanean, orain Gabonen
atarian familia askoren erretratuak izat-
en dituela dio, baina lana denboral-
diaren arabera izaten da eta sasoi
batzuetan emakume asko izaten ditue-



la zehaztu du. Onartu digunez, emaku-
meen erretratuak oso gustukoak ditu,
«era berezi batean transmititzen» du-
telako, baina ezkontzak eta era askota-
ko eskaerak jasotzen ditu.

EMAKUMEEN XARMA

Kameraren aurrean emakumeak ditue-
nean sortzen den energia horri buruz,
Elexpek aipatu digu oro har ikusi duela
gizonekin konparatuta autoestimatu txi-
kiago bat erakusten dutela emakumez-
koek. Kamera batek ez ditu mirariak
egiten, baina barruan dagoen hori aza-
lera ateratzen lagundu ahal du. «Ede-
rrak direla demostratzen ahalegintzen
naiz, eta, ildo horretan, ez da ariketa
medizinal bat, baina laguntzen du, ez
dakigu zein politak garen demostra-
tzen diguten arte eta badirudi beste ba-
tek erakutsi behar dizula hori», azaldu
digu.

Bere esperientzian oinarrituta, naba-
ritu du gizonezkoen artean ohikoagoa

dela euren buruarenganako segurtasun
handiago bat adieraztea, baina emakumeen
artean kezka eta zalantza asko ikusten
ditu, «oso lodi nago, itsusia naiz...» eta
horrelako komentarioak maizago entzuten
omen ditu azken horien kasuan. «Ez dut
emakume itsusirik ikusten, benetan, eta
are gehiago, batzuetan agian neska ederra
daukazu aurrean, eta berak jada 40 urte
dituela, bere irudiaren gaineko zalantzak
eta kezkek azaltzen dizkizu... eta gero kris-
toren argazkiak irteten dira eta ezin dute
sinistu baina haien pentsaera aldatzen da,
ederrak sentitzen dira ederrak direlako,
nik ez dut miraririk egiten», kontatu digu.

«Gizonekin, aldiz, kontrako jarrera
maizago ematen da, eta batzuetan kei-
nu eta guzti egiten dute kameraren au-
rrean, nahiz eta agian keinua batere
egokia ez izan, baina konkistatutako
lurraldean mugitzen direla ematen du
eta hori ez da emakumeen artean ikus-

ten den portaera bat», gaineratu du
Elexpek.

Objektiboaren bestaldeko lan horre-
tan egoera gogorrek ezagutu dituela ai-
tortu digu argazkilariak. Tratu txarrak
jasan dituzten bezeroak izan ditu estu-
dioan, «kasu itzelak», eta argazki erre-
portajearekin euren buruari omenaldi
moduko bat eskaintzeko aukera ikusi
dutenak, «autoestimatu edo energia txu-
te» baten beharra balute bezala edota
ahalduntzeko modu baten antzera.

EDERTASUNA AZALARAZTEA

«Batzuetan guztiz hutseratuta etortzen
dira eta komentatzen dutena da bizi-
tzaren etapa bat itxi nahi dutela eta be-
rria hasteko autoestimatu txute modu-
koa dela argazki saio hori, inflexio
puntu bat. 'Hemendik aurrera neure
burua zaintzera dedikatuko naiz, ondo
sentitzera, niretzako denbora izate-
ra...', azaldu digu estudio barruan be-
zeroaren eta argazkilariaren artean
sortzen den konplizitateaz.

Elexperen ustetan, arin konturatzen
zara, begirada tristeak, keinuek... esa-
ten duten horri erreparatzen badiozu
eta aldi berean bezeroarekin sortzen
den harreman horretan azaltzen da
edertasun naturala. «Gero, nire lana da
edertasun natural hori handitzea», az-
pimarratu du.

Horregatik, fotografia saioa hasi au-
rretik bezeroekin elkarrizketa bat izat-
en duela argitu du. Dioenez, argazkiak
ezin dira asmatu, aurretik pertsona ho-
rrekin hitz eginda aztertzen da zer-no-
lako izaera duen, zein zaletasun di-
tuen, zer-nolako musika entzuten
duen, zein janzteko era duen... eta «ar-

gazki erreportajea zergatik egin nahi duten» izaten da lehenengo galdera. «Gehienetan elkarrizketa horretan azaltzen da dena, baina sakonago lan egiteko enpatikoa izan behar duzu», nabarmendu du Elexpek, eta gaineratu du erraztasunez murgiltzen dela eremu horretan, «pertsonek ezberdinak ezagutzea» oso gustuko duelako.

Elkarrizketa horiek berebiziko garrantzia dute, erretratu klasikoak eskatzen dituzten bezeroak badituelako baina normalean zerbait berezia bilatzen duen jendea izaten du, eta saiorako beharrezko makillajea, arropa eta atrezkoa prestatzeaz arduratzen da. Horregatik, azaldu digu askotan argazki erreportaje hutsa baino «esperientzia» bat izaten dela estudioko saioa.

Esperientzia hori auzoan gauzatzea egokitu zaio orain eta emaitza erretratuen erakusketa da. Argazkiak konfinamenduan egin zituela azaldu dio GAUR8ri. Zortzi bat hilabete eman ditu proiektu horretan merkatarien elkartearen egitasmoa proposatu zuenetik. Hara jo zuen merkatarien zerrenda baten bila eta elkarteak proiektua entzun zuenean laguntza eskaini zion.

Hortik aurrera lan guztia doan egin du Elexpek, baina argazkien inprimaketaz merkatarien elkartearen arduratu da, azaldutakoaren arabera.

Egitasmoaren sorreraz kontatu digu estudiorako hitzorduak emateko orduan sarriegi entzuten zuela «horraino taxiz joango naiz?» edo «ez zara beldur?» bezalako galderak, «eta askotan pentsatzen nuen kanpoan ez dutela hemen dagoen aberastasuna ezagutzen; gauzak egon badaude, baina ez da due-



Lerro hauen gainean, Bego Elexpe, San Frantzisko kalean. Ondoko orrialdean, auzoko merkatarien erretratuen bildumaren aurrean. Aritz LOIOLA | FOKU

la urte batzuetako San Frantzisko, eta pentsaera horren aurrean auzoaren aldeko kanpaina egiten ibiltzen naiz beti, inguru honetan oso proiektu interesgarriak daudelako».

Auzotik kanpo hain zabaldua dagoen irudi injustu horren aurrean bertako dendetako pertsonak erretratatzeko pentsatu zuen, «auzoaren aurkezpen moduko bat egin nahi nuen; zera esan nahi nuen: 'Begira, pertsona normalak gara, lanbide ugari ditugu hemen eta dagoen eskaintza berezia da'». Izan ere, Bego Elexpek nabarmendu duenez, auzoak aparteko izaera bat du, kultura aniztasunarekin batera eskaintza estandarraz bestelako proposamen bi-

txiak daude, berritzaileak... «Etor zaitzke goizean eta gaua iritsi eta ez duzu dagoen guztia ikusi, eta hemen gehienak dira euren produktuen egileak eta hori baloratu beharreko gauza bat da», azpimarratu du Elexpek.

Azaldu digunez, jatetxeen eskaintzari dagokionez, proposamenak ere anitzak dira, baina beste hainbat proiektu dago ikuspegi kolektibo eta gizarte izaera markatu batekin, atzean sormen handia eta sinergia bereziak dituztenak. Aipatu ditu kaletik aurkitu daitezkeen horma irudiek ere «oso interesgarri» egiten dutela inguru bohemio hori, baina harremanen esparruan lehengo auzo zaharraren izaera hori gorde duela. «Bilbo erdian gaude baina aparteko giro bat dago hemen», adierazi digu.

Abenduaren 17ra arte izango da erakusketa Bilbao Historiko elkartearen Expogelan, eta ondorengo asteetan auzoko ostalaritza establezimenduetan banatuko dira erretratuak, sektoreak bizi duen une zail honetan. Urte berriarekin, Bilboko beste areto batzuetan izango da ikusgai, eta, besteak beste, Errekalde eta Unibertsitateko Paraninfoa izango dira helmugetako batzuk.

Elexperen esanetan, bere argazki saioak elkarrizketa batekin hasten dira, eta espazio horretan enpatiak garrantzi handia du, eta dioenez, ez dago miraririk baina saio horiek efektu terapeutikoa izaten dute batzuetan

Auzoan lanean hasi zenetik askotan entzun behar izan ditu «ez zara beldur?» gisako galderak. Horregatik erabaki zuen auzoak duen bizitza irudikatzea eta auzoan dagoen aberastasuna erakustea, estigma zahar bat desagerrarazteko